

ZIZURKILGO UDALA

**EZ OHIKO ETA PRESAZKO OSOKO  
BILKURARAKO DEIA**

Honen bidez, Ez Ohiko eta presazko Osoko Bilkurara deitzen dizut:

EGuna: **2019ko urriaren 17a, osteguna**

Ordua: **19:00**

Tokia: Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoa

**EGUNeko AZTERGAIAK**

**1.- UDALBATZAK ERABAKITZEA SAIOA  
PREMIAZKOA DEN ALA EZ.**

**2.- AURREKO UDALBATZAREN AKTAK  
ONARTZEA, BIDEZKO BADA (2019.08.26  
eta 2019.09.30).**

**3.- AMIK ETA ACMK EH BILDUREN  
BIDEZ AURKEZTUTAKO MOZIOA,  
AUZITEGI GORENAREN EPAIARI  
ERANTZUTEKO, PRESO POLITIKO  
KATALANENTZAT AMNISTIA  
ESKATZEKO ETA AUTODETERMINA-  
ZIORAKO ESKUBIDEA DEFENDATZEKO.**

**4.- 2019ko AZAROAREN 10eko  
HAUTESKUNDE OROKORRETAKO  
MAHAIAK OSATZEA ZOZKETA BIDEZ.**

**5.- GALDE-ESKAKIZUNAK.**

Zizurkilen, 2019ko urriaren 15ean

Alkatea.



**CONVOCATORIA A PLENO  
EXTRAORDINARIO DE CARÁCTER  
URGENTE**

Por la presente le convoco a la Sesión de Pleno Extraordinario urgente a celebrar:

Día: **17 de Octubre de 2.019, jueves**

Hora: **19:00**

Lugar: Salón de Plenos de la Casa Consistorial.

**ORDEN DEL DÍA**

**1.- PRONUNCIAMIENTO DEL PLENO  
SOBRE LA URGENCIA DE LA SESIÓN.**

**2.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE  
ACTAS DE PLENOS ANTERIORES  
(26.08.2019 y 30.09.2019).**


**3.- MOCION EN RESPUESTA A LA  
SENTENCIA DEL TRIBUNAL SUPREMO Y  
PARA DEMANDAR LA AMnistIA PARA  
LOS PRESOS POLITICOS CATALANES Y  
EN DEFENSA DEL DERECHO DE  
AUTODETERMINACION, PRESENTADA  
POR AMI Y ACM A TRAVES DE EH  
BILDU.**

**4.- SORTEO PARA LA FORMACIÓN DE  
LAS MESAS ELECTORALES PARA LAS  
ELECCIONES GENERALES DEL 10 DE  
NOVIEMBRE DE 2.019**

**5.- RUEGOS Y PREGUNTAS.**

Zizurkil, 15 de Octubre de 2.019

El Alcalde.



ZIZURKILGO UDALA

**2019ko URRIAREN 17an EGINDAKO  
EZOHIKO ETA PRESAZKO BILKURAKO  
AKTA**

**ACTA DE LA SESION EXTRAORDINARIA  
URGENTE CELEBRADA EL DIA 17 DE  
OCTUBRE DE 2.019**

**Partaideak/ Señores Asistentes:**

**ALKATEA/ALCALDE:**

Iker Urruzola Aizpuru (EH Bildu)

**ZINEGOTZIAK/CONCEJALES:**

Maite Amenabar Alkorta (EH Bildu)

Ivan Lizarraga Galdos (EH Bildu)

Matilde Navas Los Arcos (EH Bildu)

Trinidad Altimasberez Borja (E.A.J.-P.N.V.)

María Angeles Lazcano Larrañaga (E.A.J.-P.N.V.)

Elixabete Bello Martija (E.A.J.-P.N.V.)

José Antonio Sánchez Almaraz (G.M. Socialista – U.T. Sozialista)

José María Luengo Zapirain (EH Bildu)

Mediada la Sesión se incorpora la concejal

María Concepción Fernández Osés (G.M. Socialista – U.T. Sozialista)

Francisco Javier Pellejero Saralegi (EH Bildu)

**IDAZKARIA /SECRETARIO:**

José Ramón Eceizabarrena Garmendia

Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoan, bi mila eta hemeretzigarriko urriaren hamazazpiko hamazazpi orduak direnean, Zizurkilgo Udaleko Udalbatza bildu da, Alkate jaunaren lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren zinegotzien partaidetzarekin.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial, siendo las diecisiete horas del día dieciséis de Octubre de dos mil diecinueve, se reúne la Corporación del Ayuntamiento de Zizurkil bajo la presidencia del Señor Alcalde y con la asistencia de los Concejales que arriba se citan.

Lehendakaritzaren aginduz bilkura hasi da eta Idazkariak jakinarazi du berau egin daitekeela legez ezarritako quoruma bertan dagoelako.


Abierta la Sesión de orden de la Presidencia, el Secretario informa que la misma puede celebrarse por concurrir a ella el quórum legalmente establecido.

**1.- UDALBATZAK ERABAKITZEA SAIOA  
PREMIAZKOA DEN ALA EZ.**

Udalbatzak, aho batez, adostu du egingo den Osoko bilkura premiazkoa dela berresteak.

**1.- PRONUNCIAMIENTO DEL PLENO  
SOBRE LA URGENCIA DE LA SESIÓN.**

La Corporación, por unanimidad, acuerda ratificar la urgencia del Pleno a celebrar.



ZIZURKILGO UDALA

**2.- AURREKO UDALBATZARREN AKTAK ONARTZEA, BIDEZKOA BADA (2019.08.26 eta 2019.09.30).**

Udalatzak, aho batez erabaki du 2019ko abuztuaren 26ko Plenoaren Akta Mahai gainean uztea eta 2019ko irailaren 30eko Plenoaren Kata onartzea.

**3.- AMIk ETA ACMIk EH BILDUREN BIDEZ AURKEZTUTAKO MOZIOA, AUZITEGI GORENAREN EPAIARI ERANTZUTEKO, PRESO POLITIKO KATALANENTZAT AMNISTIA ESKATZEKO ETA AUTODETERMINA-ZIORAKO ESKUBIDEA DEFENDATZEKO.**

Aipatutako Mozioa aurkezten da eta Udalatzak hau onartzeko dagokion bozketa egiten du eta emaitza hau izan da:

- Alde: 9 (6 EH Bildurenak eta 3 E.A.J.-P.N.V.renak).
- Aurka: 0.
- Abstentzioak: 2 (2 U.T. Sozialistarenak).

beraz, Udalatzak, aho batez, aurkeztutako Mozioa onartu egiten du. Mozioa Akta honen I Eranskinean ikus daiteke.

Udal-talde Sozialistak jakinarazi du abstentzioaren alde egin duela, ez duelako epaia baloratzen, epaiari men egiten diolako, eta, gainera, ez dagoelako ados mozioko zenbait punturekin.

**4.- 2019ko AZAROAREN 10eko HAUTESKUNDE OROKORRETAKO MAHAIAK OSATZEA ZOZKETA BIDEZ.**

Zozketa egin ondoren, Hauteskundeetarako Mahaiak II Eranskinean aipatzen diren bezala osatuak gelditzen dira.

**2.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE ACTAS DE PLENOS ANTERIORES (26.08.2019 y 30.09.2019).**

La Corporación, por unanimidad, acuerda dejar sobre la Mesa la aprobación del Acta de la Pleno celebrado el día 26 de Agosto de 2.019, y aprobar el Acta del Pleno celebrado el 30 de Septiembre de 2.019

**3.- MOCION EN RESPUESTA A LA SENTENCIA DEL TRIBUNAL SUPREMO Y PARA DEMANDAR LA AMnistia PARA LOS PRESOS POLITICOS CATALANES Y EN DEFENSA DEL DERECHO DE AUTODETERMINACION, PRESENTADA POR AMI Y ACM A TRAVES DE EH BILDU.**

Se presenta para su aprobación la mencionada Moción y la Corporación, procede a realizar la votación correspondiente para su aprobación, con el siguiente resultado:


- Votos a favor: 9 (6 de EH Bildu y 3 de E.A.J.-P.N.V.).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 2 (2 de G.M. Socialista).

Por lo que el Pleno de la Corporación, por unanimidad acuerda aprobar la Moción presentada, que se expone en el Anexo I del presente Acta.

El Grupo municipal Socialista comunica que su abstención se debe a que no valoran la sentencia sino que la acatan, además de que no están de acuerdo con algunos puntos de la Moción.

**4.- SORTEO PARA LA FORMACIÓN DE LAS MESAS ELECTORALES PARA LAS ELECCIONES GENERALES DEL 10 DE NOVIEMBRE DE 2.019**

Se realiza el sorteo y las Mesas Electorales quedan formadas tal y como se recogen en el Anexo II de este Acta.



ZIZURKILGO UDALA

## 5.- GALDE-ESKAKIZUNAK.

Puntu honetan, hainbat galdera egin dituzte:

E.A.J.-P.N.V.k galdetu du ea zergatik ireki zen Plaza Etxeberri jatetxea Azokako egunean. Jakinarazi zaio ireki zela erosoago egiteko urtero egiten diren “taloak”, eta, bide batez, taberna-zerbitzua jarri zela Azokako bisitarentzat.

E.A.J.-P.N.V.k galdetu du Elbarrenako jaietako jubilatuen bazkariko faktura ordaindu den. Jakinarazi zaio fakturaren zati bat kitatu dela interesdunak Udalarekin zituen zor batzuekin.

UT Sozialistak galdetu du ea zergatik aldatu diren tokiz zenbait zabor-edukiontzia. Alkateak azaldu dio zenbait bizilagunen eskaeraren erantzuna izan dela, kexa zirelako aurreko kokapenagatik.

UT Sozialistak galdetu du zergatik dagoen hesituta Azkenportu plazatik gertu kutsatuta dauden lursailetan eremua. Alkateak azaldu du zer egoeratan dauden lursail kutsatu horiek.

UT Sozialistak gogorarazi du arriskutsu dagoela Renfeko geltokitik Ugare auzora joateko zebrabidea, eta eskatu du lehenbailehen konponbide bat ematea, ezbeharren bat gertatu aurretik. Alkateak jakinarazi dio arazoa konpontzen saiatzen ari direla, baina ezingo dutela konpondu Sacemgo Zubiko lanak amaitu aurretik.

UT Sozialistak galdetu du Azkenportuko urbanizazioako akatsei buruz. Alkateak jakinarazi dio urbanizazio hori ez duela Udalak oraindik hartu, eta akatsak eraikitzaileak konpondu behar dituela.

Azkenik, eta puntu horretan sortu den galdera-uholdea ikusirik, osoko bilkurak inolako beharrik gabe ez luzatzeko, adostu da astero edo hamabostero bilerak egitea zinegotziek, mota horretako gaiak lantzeko.

## 5.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

En este punto se plantean varias preguntas

E.A.J.-P.N.V. pregunta sobre la apertura del Restaurante Plaza Etxeberri en la Azoka. Se informa que se abrió para confeccionar más cómodamente los “talos” que se hacen todos los años y de paso se puso un servicio de bar para todos los asistentes a la feria.

E.A.J.-P.N.V. pregunta sobre el pago de la factura de la comida de jubilados de las fiestas de Elbarrena. Se informa que la factura ha sido compensada en parte con algunas deudas que tenía el interesado con el Ayuntamiento.


El GM Socialista pregunta sobre el desplazamiento de algunos contenedores de basura. El Alcalde le explica que se ha realizado a petición de algunos vecinos que sufrían molestias por su ubicación.

El GM Socialista pregunta sobre el vallado de la zona de los terrenos contaminados cerca de Azkenportu plaza. El Alcalde da cuenta de la situación de dichas tierras contaminadas.

El GM Socialista recuerda la peligrosidad del paso de cebra que une la estación de Renfe con Ugare auzoa y solicita una pronta solución al tema antes de que ocurra alguna desgracia. El Alcalde le comunica que están tratando de solucionar el tema pero que no podrán hacerlo antes de que finalicen las obras del puente de Sacem.

El GM Socialista pregunta sobre los defectos de existentes en la urbanización de Azkenportu. El Alcalde le comunica que dicha urbanización no está recepcionada y que los defectos los tiene que subsanar el constructor de la obra.

Finalmente y ante la avalancha de preguntas que se suscitan en este punto y a fin de no alargar innecesariamente los Plenos, se acuerda realizar unas reuniones semanales o quincenales entre los concejales para tratar temas de este tipo.



ZIZURKILGO UDALA

Beste aztergairik gabe, eta hogei orduak direnean,  
Batzarra amaitu da eta honetaz guztiaz nik,  
Idazkariak, fede eta kontu ematen dut.

Y sin más asuntos que tratar, y siendo las veinte  
horas, se levanta la Sesión, de la cual, yo, el  
Secretario, doy fe y certifico.

O.I.  
ALKATEA.

Vº Bº  
EL ALCALDE.



A blue ink signature in cursive script, reading "Teodoro Hemandorena".



## I ERANSKINA -- ANEXO I

ZIZURKILGO UDALA


### AUZITEGI GORENAREN EPAIARI ERANTZUTEKO, PRESO POLITIKO KATALANENTZAT AMNISTIA ESKATZEKO ETA AUTODETERMINAZIO-ESKUBIDEA DEFENDATZEKO MOZIOA

Agerian geratu den bezala, zantzu nabariak daude Espainiako demokrazia hilzorian dagoela. Oriol Junqueras, Carme Forcadell, Jordi Sánchez, Jordi Cuixart, Jordi Turull, Raül Romeva, Josep Rull, Quim Forn, Dolors Bassa, Meritxell Borràs eta Carles Mundó politikariei kartzela-zigorak ezarri dizkiete. Epaiketa politiko hau ez zen sekula egin behar. Berriro esaten dugu ozen eta argi demokrazian bozkatzea ez dela delitua. Ideiak ez dira epaitu behar. Eta horregatik aldarrikatzen dugu preso eta erbesteratu politiko guztiak aske uztea, ez dutelako inolako delitutik egin.

Epaia triste eta guztiz suminduta jaso dugu, zigortutako pertsonen, preso eta erbesteratu politikoen, banakako eskubide politikoak urratzen dituelako, eta eskubide eta askatasun kolektiboak murrizten dituelako. Epaiketak eta epaiak berak erabateko salbuespen-egoerara eraman gaituzte. Oso garai larriak dira hauek, nabarmena baita espainiar Estatuko aparatuak deuseztatu egin nahi duela anitzasun politikoa, Kataluniako herriak bere etorkizuna libreki erabakitzeko legitimitatea urratzen duela, eta gizartea independentziaren bidez eraldatzeko eskubidea zanpatzen duela. Eta, aldi berean, gaur bertan agerian geratu da Estatuko indar politikoak ez direla gai elkarritzeta erabiltzeko gatazka konpontzeko tresna gisa.

Epai honek ez gaitu geldiarazi. Aldiz, mugimendu gisa indartu gaitu, 78ko erregimena ahultzeko. Izan ere, beste behin aldarrikatuko dugu autodeterminazio-eskubidea, herritar katalan guztien aukera-berdintasuna bermatzearen alde lan egingo duen Kataluniako Errepublika aske, garbi eta justua lortzeko modu baketsuan lan egiteko eskubidea izan dezaten. Epai bakar batek ere ez gaitu geldituko. Aurre egingo diegu espainiar Estatuaren zapalketa-asmoei, eta mobilizatz egingo diegu aurre, elkarritzeta aldarrikatuz, gatazkaren konponbiderako bide politikoa eta demokratikoa aldarrikatuz. Amnistia eskatzen dugu zigortutako eta jazarritako pertsona guztientzat.

Erabat gaitzesten dugu espainiar Estatuaren jarrera iraunkorra, alde batera utzi baitu herritarren eskaerei elkarritzetaren bidez eta modu baketsuan erantzuteko ardura. Komeni da gogoratzea, esaterako, atxiloketa arbitrarioez arduratzen den Nazio Batuetako lan-taldeak 2019ko maiatzean zabaldutako ebazpenean espainiar Estatuari eskatu ziola berehala aska zitzala behin-behineko atxiloalditik Orion Junqueras, Jordi Cuixart eta Jordi Sánchez.



## ZIZURKILGO UDALA

Ebazpen hori betetzeari uko eginda agerian geratu zen beste behin ere Estatuak entzungor egiten diela ebazpenei, nazioarteko itunei (besteak beste, autodeterminazio-eskubidea aipatzen duten Nazio Batuen Gutuna eta Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna) eta Kataluniako herriak independentziaren eta Kataluniako Errepublikaren alde egiten dituen adierazpen baketsu guztiei. Jarrera hori oso larria da. Horregatik salatzen dugu; izan ere, tamalez, gogora ekartzen dizkigu herritar gehienek eskubide politikoak eta askatasunak bermatu gabe zeuden garai autoritarioak.

Justizia aldarrikatzen dugu, eta eskubideak eta askatasunak errepresiorik gabe, demokratikoki eta modu baketsuan aldarrikatzeko borroka deitzekotan gara berriro. Bizi dugun salbuespen-egoerak, epai honek bereziki larritutako egoerak, denongan du eragina, kalte egiten dio gure herrialdeko herri eta hiri guztien eguneroko bizitzari, bai eta bertan bizi garen pertsonoi ere.

Eta, beraz, aurrez azaldutako arrazoi guztiengatik, udalbatzak honako akordio hauek hartzea erabaki du:


**LEHENENGOA.** Auzitegi Gorenak urriaren 1eko epaiketari eta kausa independentistari buruz emandako zigor-epaia ez onartzea, Kataluniako herritarren eskubideak eta askatasunak murrizten dituelako.

**BIGARRENA.** Preso politiko guztiak eta erbesteratuak berehala aske utz ditzatela aldarrikatzea eta haientzat amnistia eskatzea, aitortuz urriaren 1eko referendumean, eta data horren aurreko eta ondorengo egunetako jarduera politikoan ez zela inolako delituri egin.

**HIRUGARRENA.** Autodeterminazio-eskubidearekiko konpromisoa adieraztea, oinarrizko eskubide politikoa baita, espainiar Estatuak ere sinatutako hainbat nazioarteko itunetan jasoa (besteak beste, Nazio Batuen Gutunean eta Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunean), eta eskubide gisa aldarrikatzea, hari esker lortuko baita gaur egungo gatazka politikoa bide demokratikoan eta modu baketsuan konpontzea.

**LAUGARRENA.** Berresteak mugimendu independentista katalanak izaera baketsua duela, biolentzia gabea. Gaitzestea Estatuko hainbat erakunde, organo eta botere eta zenbait komunikabide mugimendu independentista kriminalizatzeko egiten ari diren saiakera guztiak.

**BOSGARRENA.** Espainiako gobernuari eskatzea errespeta dezala Kataluniako erakundeetan demokratikoki hautatutako pertsonen legitimitatea, bai eta haien hartutako erabaki eta akordioak ere, herri-subiranotasunaren adierazpen gorena baitira.




ZIZURKILGO UDALA

**SEIGARRENA.** Zizurkilgo Udalaren atxikimendua adieraztea Auzitegi Gorenaren epaiaren kontrako mobilizazio guztiei, bai maila nazionalean, bai nazioartean ere egiten direnei, eta herritarrek gonbidatzea eskubideen eta askatasunen alde egiten diren borroka bateratu eta baketsu guztietañ parte hartzen.

**ZAZPIGARRENA.** Egunero-egunero lanean jarraitzeko borondate osoa azaltzea, Kataluniako herritarren eskubideak eta askatasunak bermatzeko; elkarritzeta, printzipio demokratikoak eta aniztasun politikoa defendatzeko; bai eta botere-banaketarekiko errespetua aldarrikatzeko ere, ezinbestekoa baita edozein zuzenbidezko estatutan, eta Zizurkilgo herritarrei ezagutzera ematea, herritar eta herrialde gisa oinarrizko eskubideak urratzen ari zaizkigula eta errepresio politikoa bizitzen ari garela.

**ZORTZIGARRENA.** Akordio hau helaraztea Lladóko Udalari (Zizurkilekin senidetuta dagoen herriari) Kataluniako Parlamentuko Presidentetzara, Kataluniako Generalitateko Presidentetzara, Diputatuen Kongresuko Presidentetzara, Estatuko Gobernuko Presidentetzara, Europako Parlamentuko Presidentetzara, Udalerrien Kataluniako Elkartera eta Independentziaren aldeko Udalerrien Elkartera. Eta mozio honen edukiaren berri ematea gure udalerriko herritarrei, egoki deritzogun bitartekoak erabiliz.



ZIZURKILGO UDALA


## **MOCIÓN EN RESPUESTA A LA SENTENCIA DEL TRIBUNAL SUPREMO Y PARA DEMANDAR LA AMNISTÍA PARA LOS PRESOS POLÍTICOS CATALANES Y EN DEFENSA DEL DERECHO DE AUTODETERMINACIÓN**

Definitivamente, la democracia en España muestra síntomas inequívocos de estar tocada de muerte. Oriol Junqueras, Carme Forcadell, Jordi Sánchez, Jordi Cuixart, Jordi Turull, Raül Romeva, Josep Rull, Quim Forn, Dolors Bassa, Meritxell Borràs y Carles Mundó han sido condenados con penas de prisión. Este ha sido un juicio político que nunca se hubiera tenido que producir. Volvemos a decir alto y claro que en democracia votar no es ningún delito. Las ideas no se juzgan. Y es por ello que reclamamos la libertad de todas las personas presas y exiliadas políticas, porque no han cometido ningún delito. Vivimos con tristeza y profunda indignación la sentencia, que supone una vulneración de los derechos políticos individuales de las personas condenadas, de las presas y exiliadas políticas, y un recorte de los derechos y libertades colectivas. El juicio y la sentencia nos han conducido a un estado de absoluta excepcionalidad.

Vivimos momentos muy graves, momentos en que se pone de manifiesto que el aparato del Estado español actúa intentando abolir la pluralidad política, vulnera la legitimidad del pueblo de Catalunya a decidir su futuro libremente, agrede el derecho que tenemos a transformar la sociedad a través de la independencia. Y, al mismo tiempo, hoy volvemos a constatar que las fuerzas políticas del Estado son incapaces de hacer uso del diálogo como instrumento de resolución del conflicto.

Esta sentencia no nos detiene. Al contrario, nos fortalece como movimiento para debilitar el régimen del 78. Y es que, una vez más, reivindicamos el derecho a la autodeterminación, el derecho a trabajar pacíficamente para que se conviertan en República Catalana, libre, limpia, justa y que trabaje por garantizar la igualdad de oportunidades de toda la ciudadanía catalana. Ninguna sentencia nos detendrá. Plantamos cara a la voluntad represora del Estado español, y lo hacemos movilizándonos, reclamando diálogo, reivindicando la vía política y democrática para la resolución del conflicto. Pedimos la amnistía para todas las personas condenadas y perseguidas.

Reprobamos la actitud sostenida del Estado español, que ha dimitido de su responsabilidad de hacer frente y dar respuesta a las demandas de la ciudadanía, por vía dialogada y pacífica. Conviene recordar, por ejemplo, que, en mayo de este año 2019, el grupo de trabajo sobre detenciones arbitrarias de



## ZIZURKILGO UDALA

Naciones Unidas hizo pública una resolución que instaba al Estado español a dejar en libertad de forma inmediata Oriol Junqueras, Jordi Cuixart y Jordi Sánchez, que se encontraban en prisión preventiva.

El incumplimiento de esta resolución fue una muestra más de que el Estado actúa desoyendo cualquier resolución, tratado internacional (como la Carta de las Naciones Unidas y el Pacto Internacional de Derechos Civiles y Políticos que recogen el derecho a la autodeterminación) o todas las manifestaciones pacíficas del pueblo de Catalunya a favor de la independencia y de la República Catalana. Esta actitud es muy grave. Por eso la denunciamos, porque, desgraciadamente, nos recuerda etapas autoritarias en la que no estaban garantizados los derechos políticos ni las libertades de la mayor parte de la ciudadanía.


Reivindicamos justicia, y nos disponemos a liderar de nuevo la lucha anti represiva, democrática, pacífica y a favor de los derechos y las libertades. La situación de excepcionalidad que estamos viviendo, agravada especialmente por la confirmación de la sentencia, nos afecta a todos, afecta la cotidianidad de los pueblos y ciudades de nuestro país y de todas las personas que las habitamos.

Y, por tanto, es por todos los motivos expuestos anteriormente que el pleno adopta los siguientes acuerdos:

**PRIMERO.** Manifestar el rechazo a la sentencia condenatoria emitida por el Tribunal Supremo en relación al juicio del 1 de octubre y la causa independentista, constatando que representa una regresión de los derechos y las libertades de la ciudadanía de Catalunya.

**SEGUNDO.** Reclamar la libertad inmediata de todos los presos y presas políticas y exigir la amnistía de todos ellos y ellas, y de todos los exiliados y exiliadas, como reconocimiento de la ausencia de ningún delito vinculado a la celebración del referéndum del 1 de octubre y a cualquier otra acción política celebrada durante los días previos y posteriores a esta fecha.

**TERCERO.** Mostrar el compromiso con el derecho a la autodeterminación, derecho político fundamental recogido en tratados internacionales como la Carta de las Naciones Unidas y el Pacto Internacional de Derechos Civiles y Políticos, firmados también por el Estado español, y reivindicarlo como derecho en virtud del cual resolver el conflicto político existente, por vía democrática y pacífica.



ZIZURKILGO UDALA


**CUARTO.** Reafirmarnos en el carácter pacífico y no violento del movimiento independentista catalán. Condenar todos los intentos de criminalización del movimiento independentista que las diferentes instituciones, órganos y poderes del Estado, así como medios de comunicación, quieren construir.

**QUINTO.** Exigir al gobierno de España que respete la legitimidad de las personas escogidas democráticamente en las diferentes instituciones catalanas, así como las decisiones y acuerdos que se deriven, como máxima expresión de la soberanía popular.

**SEXTO.** Mostrar la adhesión del Ayuntamiento de Zizurkil a todas las movilizaciones de rechazo a la sentencia del Tribunal Supremo, tanto a nivel nacional como internacional, e invitar a la ciudadanía a participar en todas las luchas compartidas y pacíficas a favor de los derechos y las libertades.

**SÉPTIMO.** Expresar la más firme voluntad de seguir trabajando, día a día, para garantizar los derechos y las libertades de toda la ciudadanía de Catalunya, la defensa del diálogo y de los principios democráticos y la pluralidad política, así como el respeto a la separación de poderes, imprescindible en cualquier estado de derecho, y dar a conocer la situación de represión política y vulneración de derechos fundamentales que se están viviendo, a la ciudadanía de Zizurkil.

**OCTAVO.** Hacer llegar este acuerdo al Ayuntamiento Lladó (pueblo hermanado con Zizurkil), a la Presidencia del Parlament de Catalunya, a la Presidencia de la Generalitat de Catalunya, a la Presidencia del Congreso de Diputados, a la Presidencia del Gobierno del Estado, a la Presidencia del Parlamento Europeo, a la Asociación Catalana de Municipios y la Asociación de Municipios por la Independencia. Y dar conocer el contenido de esta moción a la ciudadanía del municipio por los medios que se crean oportunos.



ZIZURKILGO UDALA

## II ERANSKINA

**2019ko AZAROAREN 10eko  
HAUTESKUNDE OROKORRETAKO  
MAHAIAK OSATZEA ZOZKETA BIDEZ.**

Zozketa egin ondoren, Hauteskundeetarako  
Mahaiak honela osatu dira:

## ANEXO II

### SORTEO PARA LA FORMACION DE MESAS ELECTORALES PARA LAS ELECCIONES GENERALES DEL 10 DE NOVIEMBRE DE 2.019

Se realiza el sorteo y la formación de las Mesas  
Electorales resulta como sigue:

1 - A MAHAIKO KARGUAK CARGO MESA 1 - A	HAUTESLEA ELECTOR
<b>Lehendakaria /Presidente</b>	<b>AIZPURUA ELICEGUI, Arkaitz</b>
1. Ordezkoa / 1. Suplente	APALANZA ZUBELDIA, EndikaJon
2. Ordezkoa / 2. Suplente	IRAOLA MANGADO, Joseba
<b>1. Mahaikidea / 1er. Vocal</b>	<b>IRASTORZA BERASATEGI, Maria Luisa</b>
1. Ordezkoa / 1. Suplente	MAIALEN GODOY DIAZ, Tomás
2. Ordezkoa / 2. Suplente	AIZPITARTE TOBAR, Maddi
<b>2. Mahaikidea / 2º Vocal</b>	<b>GARMENDIA IRASTORZA, Inmaculada</b>
1. Ordezkoa / 1. Suplente	ARROSPIDE ALUSTIZA, Maite
2. Ordezkoa / 2. Suplente	DE LA IGLESIA MUÑOA, José Antonio

1 - B MAHAIKO KARGUAK CARGO MESA 1 - B	HAUTESLEA ELECTOR
<b>Lehendakaria /Presidente</b>	<b>MARTIN BLAZQUEZ, Teófilo</b>
1. Ordezkoa / 1. Suplente	MARTIN LEMIÑA, Jurema
2. Ordezkoa / 2. Suplente	SANZ AZURMENDI, Leire
<b>1. Mahaikidea / 1er. Vocal</b>	<b>ZUGASTI ORMAZABAL, Imanol</b>
1. Ordezkoa / 1. Suplente	VELASCO MOREITA, José Antonio
2. Ordezkoa / 2. Suplente	MADERA MORENA, Maykel
<b>2. Mahaikidea / 2º Vocal</b>	<b>SIERRA ARANA, Garbiñe</b>
1. Ordezkoa / 1. Suplente	URBIETA DERIOZPIDE, Maialen
2. Ordezkoa / 2. Suplente	LUIS MARTIN, Jorge

2 MAHAIKO KARGUAK CARGO MESA 2	HAUTESLEA ELECTOR
<b>Lehendakaria /Presidente</b>	<b>CHAVEZ GODOY, Antonia</b>
1. Ordezkoa / 1. Suplente	MIGUAL YARZA, María Carmen
2. Ordezkoa / 2. Suplente	LUIS SANCHO, Vanessa
<b>1. Mahaikidea / 1er. Vocal</b>	<b>FERNANDEZ OSSES, María Concepción</b>
1. Ordezkoa / 1. Suplente	GONZALEZ RODRIGUEZ, María
2. Ordezkoa / 2. Suplente	RIVERO VAZ, Naiara
<b>2. Mahaikidea / 2º Vocal</b>	<b>SALCEDA CUADRADO, Araceli</b>
1. Ordezkoa / 1. Suplente	PASCUAL GOMEZ, Joana Isabel
2. Ordezkoa / 2. Suplente	BROCO CUADRADO, Ainara